



2008ko Jarduketa-plana

Vitoria-Gasteiz, 2008ko apirilaren 22a



EAEko toponimiako datu-basea zuzendu eta eguneratzeko Euskaltzaindiarekin protokoloa zehaztea

EAEko toponimiako datu-basea zuzendu eta eguneratzeko Euskaltzaindiarekin protokoloa zehaztea.

Helburua: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren (HPS) eta Euskaltzaindiaren arteko informazio-trukaketarako azpiegitura iraunkorra eta prozedura egituratu egokia sortzea, EAEko toponimiako datu-basea eguneratuta izateko eta, ondorioz, toponimia zuzena erabiltzaile guztien eskura uzteko.

Deskribapena: HPSren ardura eta egitekoa izan da EAEko toponimia jaso, arautu eta erabiltzaileen eskura jartzea. Lan horiek bi fasetan egin ditu: lehenengo fasean hiru lurren lana jaso eta arautu zen eta, bigarrenenean, egindako lanak berrikusi eta zuzendu dira. Bestalde, araututako toponimoei edo hauen kokapenari dagokienez, horien zabalkundea egiten du eta kontsultei erantzuten die. Euskal izen zuzena finkatzea, berriz, Euskaltzaindiari dagokio. Kontuan izanda toponimia-lanetan etengabe egin behar direla zuzenketak —toponimoa bera dela, edota toponimoaren kokapena dela, edota toponimo berriak direla eta—, datuak eguneratuta edukitzeko ezinbestekoa da aldaketen berri izatea. Alabaina, ez dago finkatuta zeregin hori gauzatzeko prozedura jakin bat.

Proposamena: Euskaltzaindiaren eta HPSren artean protokolo bat finkatzea, batetik, gizarteratuko den toponimiari egingo zaizkion aldaketak bidaltzeko eta jasotzeko, eta bestetik, Euskaltzaindiari helarazi behar zaizkion kontsultak bideratzeko prozedura zehazteko.

Oharra: Euskaltzaindiak udalek sustatutako lanetan (toponimia-ikerketan nahiz lan kartografikoetan) parte hartzen du, kontsulta puntualak erantzuten ditu eta, ondorioz, aurretik araututako formen gainean zuzenketak egiten ditu. Horiek guztiak EAEko datu-basean txertatu behar dira.

Data: ekainaren bukaera

NORK: Euskaltzaindia eta HPS



Toponimia-trukaketak egiteko foru-aldundiekin protokoloa zehaztea

Toponimia-trukaketak egiteko foru-aldundiekin protokoloa zehaztea.

Helburua: EAEko toponimia dela eta, Eusko Jaurlaritzaren —Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren bitartez—, eta hiru lurraldeetako foru-aldundien arteko lankidetzaren sistematikoa eratzea.

Deskribapena: Aldundiek toponimia erabili eta jasotzen dute. HPSk EAEko toponimiako datu-basea osatuta eta bateratuta izan ondoren, aldundi bakoitzari dagokion toponimia eskuratuko dio. Horrela, toponimia zuzendua eta arautua izango dute. Izan ere, helburua da denok toponimia bera eta zuzena erabiltzea. Gainera, lankidetzaren horri esker, batetik, aurrerantzean egingo diren aldaketan berri izango dute aldundiek eta, bestetik, leku berriak izendatzeko premia suertatzen denean (errepide, poligono... berriak), horiek ere jaso eta integratuko lirake EAEko datu-basean.

Proposamena: HPSren eta aldundien artean protokolo bat finkatzea, gizarteratuko den toponimiari egingo zaizkion aldaketak bidaltzeko eta jasotzeko, eta jarri beharreko izen berriak gordetzeko eta prozesatzeko.

Data: ekainaren bukaera

NORK: hiru foru aldundiak eta HPS



EAEko Izendegi Geografikoa egitea

EAEko Izendegi geografikoa egitea.

Helburua: EAEko Izendegi Geografikoa egitea, ondoren *Nomenclátor Geográfico Nacional*-ean integratzeko (1:25.000 eskala).

Deskribapena: *Instituto Geográfico Nacional*-eko (IGN) *Consejo Superior Geográfico* "Modelo de Nomenclátor de España" definitu du IDEE (Infraestructura de Datos Espaciales de España) izeneko dokumentuan. Proiektu hori abian da. Lehenengo urratsa izan da IGNk egin berri duen "Nomenclátor Geográfico Conciso de España" (1:1.000.000 eskalan). Hurrengo urratsa *Nomenclátor Geográfico Nacional egitea izango da* (ikus erantsitako dokumentua). IGNk autonomia-erkidegoei bakoitzak berea egiteko aukera eskaini die. Horren ezean, IGNk berak egingo du.

Izendegi geografikoaren bidez hainbat funtzionalitate eta zerbitzu eskaintzen da: mapen zerbitzua (WMS), katalogo-zerbitzua eta izendegi-zerbitzua.

Izendegiak kartografia ofizialean erabili behar diren izendapen ofizialak jasotzen ditu; izendapenok erreferentzia geografikoak dituzte. Beraz, informazioa ematen duen erregistro dinamikoa da izendegi geografikoa.

Nomenclátor Geográfico Nacional-a Europar Batasunaren INSPIRE (Infrastructure for Spatial Information in Europe) proiektuaren barruan integratuko da (ikus erantsitako dokumentua).

Proposamena: *EAEko Izendegi geografikoa* egiteko proiektua definitzea.

Oharra: Behin proiektua definituta eta onartuta, proiektuaren fitxa egingo da eta jarduketa-plan honetan txertatuko da.

Data: maiatzaren bukaera

NORK: HPSk definituko du proiektua (Batzordean aurkeztu ondoren, epe bat finkatuko da batzordekideen oharrak eta iradokizunak jasotzeko).



Toponimoak kartografian errotulatzeko irizpideak finkatzea

Toponimoak kartografian errotulatzeko irizpideak finkatzea.

(ikus I. eranskina)

Helburua: toponimoak kartografian nola errotulatu behar diren zehaztu eta finkatu.

Deskribapena: bi hizkuntza ofizial izanda, normalean EAEn ez da mapa elebidunik egiten. Toponimo motaren arabera (lineala, puntuala, zabalera handikoa...), oso garrantzitsua da erabakitzea nola agertuko den mapan: generikoarekin, generikorik gabe... Bestalde, kontuan izan behar da toponimoen dentsitatea eta eskalak.

Proposamena: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2006an landu zituen irizpideak (orduan Lurralde Antolamenduarekin eta Euskaltzaindiarekin kontrastatu zituen), Toponimia Batzordeak eztabaidatzea eta berrestea edota egokitzea.

Data: uztailaren bukaera

NORK: Mikel Gorrotxategi (Euskaltzaindia), Joseba Andoni Apraiz (Ingurumen, Lurralde eta Antolamendu Saila), Jose Mari Berasategi (AFA), Joseba Urzelai (BFA), Maria Luisa Etxeberria (GFA), Oihana Mitxelena (IGN), Patxi Galé, Endika Urtaran eta Mirari Alberdi. Koordinatzailea: Mirari Alberdi



Iparaldeko toponimia-lanarekin koordinatzea

Iparaldeko toponimia-lanarekin koordinatzea.

Helburua: EAEko toponimia-lanetarako finkatutako irizpideak eta metodologia Iparaldeko toponimia-lanarekin koordinatzea.

Deskribapena: hizkuntza bat eta bera izanda komenigarri litzateke Iparaldean toponimia-arloan egingo diren lanetan kontuan izatea urteetan Hegoaldean landu eta jorratu diren irizpideak, metodologia eta abarrekoak.

Proposamena: Iparaldearekin lankidetzan finkoa lantzea eta bi eremu geografikoetako lanak uztartzeko bideak lantzea.

Data: irailaren bukaera

NORK: Mikel Gorrotxategi, Bernardette Soulé eta Mirari Alberdi / Araceli Díaz de Lezana.
Koordinatzailea: Mirari Alberdi / Araceli Díaz de Lezana



Toponimiaren zabalkundea egin eta araututako toponimoen erabilera hedatu eta ziurtatzea

Toponimiaren zabalkundea egin eta araututako toponimoen erabilera hedatu eta ziurtatzea.

Helburua: EAEko toponimia arautua eta normalizatua ahalik eta toki gehienetara iritsaraztea eta modu egokian erabiliko dutela ziurtatzea.

Deskribapena: toponimiaren erabiltzaileak asko dira (Euskal Herrikoak eta Euskal Herritik kanpokoak) eta toponimia hainbat bidetatik lortzen dute. Gaur egun, informazio-iturri inportanteena Internet da, zalantzarik gabe. Hortaz, bestelako bideak aztertzeaz gain, araututako toponimia hedatzeko moduak aztertu eta jorratu beharko lirateke. Izan ere, gaur egun, Internetek zenbait tresnatarra (GoogleMaps, GoogleEarth, GeoNames...) sartzeko bidea eskaintzen du. Tresna horiek erreferentzia garrantzitsu bihurtu dira asko kontsultatzen direlako. Hori horrela, komenigarri litzateke EAEko toponimia arautua eta normalizatua mundu-mailako zerbitzu horietan eskaintzea. Bestalde, erabilera zuzena ziurtatzeko bideak ere landu beharko dira.

Proposamena: EAEko toponimia arautuaren zabalkundea egiteko puntu estrategikoak zeintzuk diren zehaztu, batez ere Sarean daudenak, eta horiengana iristeko bidea zein den bilatu. Beraz, toponimiaren zabalkundea egiteko eta araututako toponimoen erabilera hedatzeko estrategiak landu behar dira, erabiltzaile mota guztiak ondo identifikatuta eta zehaztuta (herri-administrazioak, bestelako erakundeak, enpresak, zerbitzuak...); gainera, toponimia zuzen erabiltzen dutela ziurtatzeko bideak ere aztertu behar dira.

Data: irailaren bukaera

NORK: Mikel Gorrotxategi, Joseba Andoni Apraiz, Jose Elortegi (EUDEL), Jose Mari Berasategi (AFA), Joseba Urzelai (BFA), Maria Luisa Etxeberria (GFA), Oihana Mitxelena (IGN), Patxi Galé, Endika Urtaran, Mirari Alberdi. Koordinatzailea: Mirari Alberdi



Udal administrazioan tokiak izendatzeko irizpideak zehaztea (EUDEL)

Udal administrazioan tokiak izendatzeko irizpideak zehaztea (EUDEL)

Helburua: udal-espedienteetan, kaleak, industria gunek, urbanizazioak, eraikin berriak eta antzekoak izendatzeko unean, izen horiek finkatzeko urratsa aurreikustea eta prozedura zehatza ezartzea.

Deskribapena: udal-administrazioa toponimia aratuak daukan garrantziaz jabe dadin komeni da. Sarritan, hiri eta herrien hazkundearen ondorioz, zenbait toponimo galdu egiten dira udaletan izendapen berriei buruzko irizpide argirik ez dutelako. Udaletako ordezkariari ulertarazi behar zaie martxan jartzen diren espedienteetako prozeduraren barruan izenak finkatzeko urratsa ere sartu behar dela, eta toki bati izena jarri aurretik inguru horretako toponimiari buruzko kontsulta egin behar dutela.

Proposamena: lanean hastea udaletan irizpideak lan daitezen eta aplikatzeko modu egokia zein den zehazteko modua EUDELekin batera lantzea.

Data: urriaren bukaera

NORK: HPS, EUDEL eta foru-aldundiak



Bizkaiko hiri-toponimia bildu, arautu eta EAEko datu-basean integratzea

Bizkaiko hiri-toponimia bildu, arautu eta EAEko datu-basean integratzea

Helburua: Bizkaiko hiri-toponimia bildu, arautu eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak duen EAEko toponimiako datu-basean integratzea.

Deskribapena: Bizkaiko toponimiaren berrikuste-lana egin zenean ez zen hiri-toponimia jaso. Arabako eta Gipuzkoako toponimia berrikuste-lanetan, ordea, hiri-toponimia bildu zen. Hiru lurraldeen toponimia modu homogeneoan eta bateratuan izateko beharrezkoa da Bizkaiko hiri-toponimia datu-basean integratzea. Beraz, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak lan hori 2008an kontratatuko du.

Data: 10 hilabete kontratua esleitzen denetik

NORK: HPSk lana kontratatuko du 2008an



EAEko toponimiako datu-basea zuzendu eta eguneratzea

EAEko toponimiako datu-basea zuzendu eta eguneratzea

Helburua: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPSk) duen EAEko toponimiako datu-basea eguneratuta mantentzea.

Deskribapena: Bizkaiko eta Arabako toponimia berrikusi, zuzendu eta arautze-lana egin ondoren, Gipuzkoakoa berrikusi da. Lan berri hori datu-basean integratu eta gero, EAEko datu-basea osatuta egongo da eta bateratuta, egiturari dagokionez.

Edukiari dagokionez, Arabako eta Gipuzkoako berrikusketetan hiri-toponimia ere landu da. 2008an Bizkaiko hiri toponimia bilduko da hiru lurraldeak berdintzeko.

Oharra: Datu-basea eguneratuta mantentzeko ezinbestekoa izango da erakunde desberdinen arteko koordinazioa eta lankidetzaren bermatzea: Euskaltzaindia, Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak, udalak...

Data: abenduaren bukaera

NORK: HPSk aipatutako erakundeekin finkatuko dituen protokoloen bidez



EAEko toponimia arautua INTERNET bidez zabaltzea

EAEko toponimia arautua Internet bidez zabaltzea.

Helburua: EAEko toponimo arautuak erabiltzaileen eskura jartzea.

Deskribapena: EAEko toponimiako datu-basea eta EAEko biztanle-entitateen izen ofizialak (bai eta egindako toponimia-lanarekin erlazionatuta dauden zenbait dokumentu ere), Eusko Jaurlaritzaren web gunean daude kontsultagai: www.euskadi.net/euskara_toponimia

Oharra: Interneteko kontsultan egokitzapenak egin behar dira etengabe.

Data: abenduaren bukaera

NORK: HPS



Biztanle-entitateen izen ofizial desegokien aldaketa bultzatu eta zabaltzea

Biztanle-entitateen izen ofizial desegokien aldaketa bultzatu eta zabaltzea

Helburua: EAEko biztanle-entitateen izen ofizial desegokien aldaketa bultzatzea eta zabaltzea. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak egin izan du eta egiten du lan hori.

Deskribapena: Euskararen Legean toponimoak ofizialtzeko finkatutako irizpidearen arabera, izen ofiziala aldatzeko premia ikusten den kasuetan, udalerrien eta biztanle-entitateen izen ofizialak zuzentzeko edo EAEko hizkuntza ofizial bietara egokitzeko, azken urteotan egindako lanarekin jarraitu behar da. Gai honetan lanik handiena Arabako lurraldean egin behar denez, 2008an Arabako Foru Aldundiarekin lankidetzan aritzea aurreikusten da.

Halaber, aldatutako izenei buruzko informazioa zabaltzen eta jakinarazten segitu behar da izen ofizialen gaineko informazio eguneratua izan nahi dutela adierazi duten erakunde, enpresa edota pertsoneri.

Horrez gain, toponimia ofizialaren erabilera okerra dela-eta jasotzen diren kexa eta oharrak bideratuko dira.

Oharrak: HPSk laguntza eskaintzen die izen ofiziala aldatu nahi duten toki-entitateei espedientearen izapideak burutzeko.

Data: abenduaren bukaera

NORK: HPS eta Arabako Foru Aldundia

TOPONIMIA BATZORDEA

2008ko jarduketa-plana: lanak eta epe-mugak

EGIN BEHARREKO LANAK	EPE-MUGA
EAEko toponimiako datu-basea zuzendu eta eguneratzeko Euskaltzaindiarekin protokoloa zehaztea	Ekainaren bukaera
Toponimia-trukaketak egiteko foru-aldundiekin protokoloa zehaztea	Ekainaren bukaera
EAEko Izendegi Geografikoa egitea (proiektua definitu)	Maiatzaren bukaera
Toponimoak kartografian errotulatzeko irizpideak finkatzea	Uztailaren bukaera
Iparraldeko toponimia-lanarekin koordinatzea	Irailaren bukaera
Toponimiaren zabalkundea egin eta araututako toponimoen erabilera hedatu eta ziurtatzea	Irailaren bukaera
Udal administrazioan tokiak izendatzeko irizpideak zehaztea (EUDEL)	Urriaren bukaera
Bizkaiko hiri-toponimia bildu, arautu eta EAEko datu-basean integratu	10 hilabete kontratua esleitzen denetik
EAEko toponimiako datu-basea zuzendu eta eguneratzea	Abenduaren bukaera
EAEko toponimia arautua Internet bidez zabaltzea	Abenduaren bukaera
Biztanle-entitateen izen ofizial desegokien aldaketa bultzatu eta zabaltzea	Abenduaren bukaera